

## AURREKONTUAREN MEMORIA

### 1. **SARRERA.**

2019-2023ko Legealdiaren lehen aurrekontua dugu hau. Datozen lau urte hauetarako Gobernuak herritarrekin batera finkatutako erronkak eta hartutako konpromisoak betetzeko oinarriak jarri ditugu 2020ko aurrekontuan.

Gure aurrekontuaren ardatz nagusia herritarrak dira eta kolektibo guztien beharrak eta ongizatea bermatzea da gure lehentasuna.

Hartara, Hernaniren hazkunderari eta horrek dakartzan azpiegituren eta zerbitzu publikoen handitzeari erantzutea da gure erronka nagusia.

Azpiegiturei dagokienez, auzoak biziberritzea eta mugikortasuna hobetzea da datozen urteotako gure apustua eta 2020ko aurrekontuan datozen lau urteotan egin nahi ditugun proiektu askoren oinarriak jarriko ditugu. Landare-Zubiondo-Ibaiondo bidegorria, Portu eta Karabelen arteko oinezko bidea, Elizatxo goikoaren urbanizazioa, Osinagako zubia... horiek gauzatzeko proiektu teknikoak idazteko partidak bideratu dira 2020ko aurrekontuan.

Lehendik landutako egitasmoen emaitzak ere ikusiko ditugu 2020an. Kulturarteko Plaza Feminista da horren adibide nagusia. Urtetan diseinatzen eta edukiz mamitzen aritu den proiektua behingoz gozatzeko aukera izango dugu. Aurrekontuan jasotzen dira eraikin hori kulturartekotasunaren eta feminismoaren erreferentziazko gune bihurtzeko baliabideak.

Etengabe hazten ari den eskaerari erantzuteko, jarduera fisikoa eta kirol azpiegiturak eta baliabideak egokitzeko partidak ere bideratuko dira, nagusiki, igerilekuan, kiroldegian, eta Zubipe zelaian hobekuntzak egiteko inbertsioak.

Garapen jasagarria gure gobernuaren beste zutabe bat da: tokiko baliabideak -nekazaritza, merkataritza, ondarea, kultura-, ekonomia soziala sustatzeko proiektuak -Iturola Elkarlan Sorgunea-, baita herriko dendak ere.

Izan ere, herriko merkatariei bultzada emateko partidak ere txertatu dira. Merkataritza Plana egin berria da eta horrek proposatzen dituen ekintza batzuk gauzatzeko partida garrantzitsu bat jasotzen du aurrekontuak. Horrekin batera, Turismo jasagarria sustatzeko lehenengo ekintza plana ere garatzen hasiko gara.

Udal eraikinetan eta kaleko argiztapenean energia aurrezteko eta berriztagarrien alde jarraitzeko inbertsioak eta jarduketak ere txertatu dira 2020rako.

Kalitatezko zerbitzu sozialak eskaintzeko baliabideak ere jarri ditugu. Hartara, 2020rako Zerbitzu Sozialak erakundeari egingo diogun ekarpenak igoera nabarmena izan du (2019an baino %13,82 gehiago). Gure jendartean gero eta adineko pertsona gehiago dago eta kolektibo honentzako zerbitzuen eskaintza handitzen eta hobetzen ari gara. Hori dela eta, zerbitzu sozialetako langileen lan-baldintzak hobetzeko eta kontratu berriak egiteko helburuz igo da ekarpena.

## 2. AURREKONTUAREN AZALPENA. DATU OROKORRAK.

	Aurrekontua 2020	Has. Aurrekontua 2019	Has. Aurrekont. 2018
Gastuak Guztira	29.549.159,00	32.319.683,00	27.427.709,00
Sarrerak Guztira	29.549.159,00	32.319.683,00	27.427.709,00
Gastu arrunta	27.808.659,00	27.591.254,00	25.129.359,00
	%94	%85	%92
Sarrera Arruntak	29.528.659,00	30.722.446,00	27.055.152,00
	%100	%95	%99
Inbertsioak	1.730.500,00	4.718.429,00	2.288.350,00
Aurrezpena: Sarrera Arrunta-Gastu arrunta- amortizazioak	1.720.000,00	2.766.192,00	1.563.793,00
	%5,8	%9,0	

**2020 urteko Aurrekontua 2019 urtekoarekin alderatzen badugu, %8,5eko jaitsiera ematen dela nabarmentzen da. Alabaina, jaitsiera hau 2019ko aurrekontuak jasota zituen ezohiko eragiketengatik ematen da, beraz, ezin dugu erreferentzia gisa hartu. Izan ere, 2019 urteko aurrekontuak hainbat ezohiko diru-sarrera biltzen zituen, Hirigintza alorrekoak. Hori horrela, 2018ko aurrekontu datuekin konparatuz gero, aldaketa parametroak zentzuzkoagoak dira, eta urte hori erreferentzia hartuta, 2020ko aurrekontuak %7,7ko igoera du.**

### 3. AURREKONTUAREN AZALPENA. SARRERAK.

- Kapitulukako laburpena:

SARRERAK KAPITULUKA	2020 AURREKONTUA	2019 AURREKONTUA	2018 AURREKONTUA
1-Zergak	6.734.058,00	6.515.380,00	6.562.650,00
2-Eraikuntza Zerga	519.000,00	2.954.445,00	370.000,00
3-Tasak	6.732.726,00	6.517.962,00	6.475.655,00
4-Transf arruntak	15.478.175,00	14.686.844,00	13.584.232,00
5-Ondare sarrerak	64.700,00	47.815,00	62.615,00
6-Hirigintza sarrerak	2.000,00	1.579.699,00	6.019,00
7-Kapital transf	8.500,00	7.538,00	6.538,00
8-Finantza aktiboak	10.000,00	10.000,00	10.000,00
9-Mailegua	0,00	0,00	350.000,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>29.549.159,00</b>	<b>32.319.683,00</b>	<b>27.427.709,00</b>

Laburbilduz, hauek dira aurrekontuan aldaketa nabarmenenak:

- Zerga eta tasak: irailaren 24ko udalbatzarrak onartutako ordenantza fiskalen tarifa igoera kontuan hartu da. Igoeraren estimazioa, 78.000 euro inguru.
- OHZ-IBI-ren aurreikuspenak (lehen kapitulua) 2018ko datua nabarmen hobetuko du bi arrazoiengatik: zerga igoera batetik, eta higiezin kopurua handitzea bestetik (2017ko padroian 16.660 higiezin zeuden, eta 2019koan 16.883).
- Jarduera ekonomikoaren zerga aurreikuspenean igoera eman da, nahiz eta urteko padroietan ez dagoen aldaketa nabarmenik. Urtean zehar egindako likidazioen estimazioa jaso delako,
- 2018 eta 2019ko zerga eta tasen likidazioak aztertu dira, eta horren baitan 2020ko aurreikuspena osatu da. Horrek aurreikuspenetan moldaketak ekarri ditu. Kasu batzuetan, %0,8ko igoera baino handiagoa gertatzen da, beste parametro batzuk ere hazkundera izan dutelako, etxebizitza kopurua adibidez.
- Kiroldegiko sarrerak egokitu dira –abonatuak eta ikastaroak-, 2017an bukatutako obra ondoren, 2018ko erreferentzia kontuan hartu da.
- Udal Finantzaketarako Foru Funtsa: laugarren kapituluan -jasotako transferentzi arruntak- Foru Aldundiko Ogasun Sailak urriaren 15ean jakinarazi zuen Udal Finantzaketako Foru Funtsaren aurreikuspena. Horren arabera, 2019 urtearen likidazioa positiboa izango da, aurreikusitakoa baino %3,09 gehiago. 2020 urterako, aurreko urtean baino %4,76 aurreikusi du Ogasun Sailak, hau da, 666.613 euro gehiago

(hasierako aurreikuspenarekiko), eta 2018an errealki likidatutakoa baino 922.169 euro gehiago.

Alabaina, hauek behin behineko estimazioak dira, 2019ko likidazio datua datorren otsailean ezagutuko baitugu.

- Hirigintza sarrerak: atal honetan, iaz ez bezala, ez da aurreikusten sarrera nabarmenik eragin dezaken egitasmorik.
- Galarretako eremuaren garapena: eremu honen inguruko egitasmorik ez da aurreikusi. 2018 martxoaren 23ko Tokiko Gobernu Batzarrak behin betiko onarpena eman zion Hernaniko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategineko (HK) GA.06 Sektoreko Urbanizatzeko Jarduketa Programari, Galarreta eremuari dagokiona. Erabaki hau horrela jakinarazi zitzaizen jarduketak eragiten dien ondasun eta eskubideen titularrei. Hori erantzunez, titularretako batek erabakiaren aurkako errekurtsua tartekatu du, beraz, gaia auzibideetan dago. Hori horrela, epaia jakiten dugunean planifikatuko ditugu aurrerantzean eman beharreko urratsak. Galarretan bi jarduketa aurre-ikusten dira. Batetik, Errepide Sistema Orokorrak eraikitzea, GI-2132 errepidearekiko lotura. Obra hau garatzeko finantzazioaren zati bat Udalak eskuratua du, eta gainontzekoa ere eskuratu beharko du lursailak garatzen doazen neurrian. Bestetik, Galarreta-06 eremuaren urbanizazioa, Udalak burutu beharko duena lurjabeen kontura (kooperazio sistema). Bi kasutan nabarmena da urbanizazio lanen barruan errepide sistemarekiko loturak eragiten duten karga. Hori horrela, errepide alorrean eskumena duen organoa Foru Aldundia izanik, haren parte-hartzea eta laguntza eskatu izan da birritan, egitasmoaren bideragarritasuna ziurtatze aldera, baina gaurdaino ez da erantzun positiborik jaso.
- Aurten ere, azken urteetan bezala, ez da mailegurik eskatuko. Udalak duen Diruzaintzako Gerakinarekin, lehenik finantzazio propioen baliabideak agortu beharko lituzke eta.

## 4. AURREKONTUAREN AZALPENA. GASTUAK:

- Kapitulukako laburpena.

GASTUAK KAPITULUKA	2020 AURREKONTUA	2019 AURREKONTUA	2018 AURREKONTUA
1-Langileria gastuak	9.025.873,00	8.681.852,00	8.055.300,00
2-Ond. arrunten eta zerb.en gastuak	12.327.240,00	12.035.940,00	11.539.237,00
3-Gastu finantzarioak	6.500,00	11.000,00	14.000,00
4-Transferentzia arruntak	4.878.416,00	4.907.636,00	4.450.101,00
5-Kreditu Globala	1.204.630,00	1.589.826,00	708.721,00
6- Inbertsio errealak	1.730.500,00	4.718.429,00	2.288.350,00
7-Kapital transferentziak	0,00	0,00	0,00
8-Aktibo finantzarioak	10.000,00	10.000,00	10.000,00
9-Pasibo finantzarioak	366.000,00	365.000,00	362.000,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>29.549.159,00</b>	<b>32.319.683,00</b>	<b>27.427.709,00</b>

### LANGILERIA GASTUAK:

- Aurrekontuaren eranskinean –langileen zerrenda- jasotzen dira aurrekontuan jasotako lanpostuak, izaera eta bakoitzaren urteko kostua. Oro har, plantilla aurreikuspena %4,55 hazten da. Igoera horren %2,5 2019 urteko soldata igoerari dagokio. Gainontzeko igoera, programa eta plantilla aldaketei dagokie, hala nola: Lanbidek finantzaturako enplegu programak (+116.000 igoera), Beterri Hitzarmenaren bidez finantzaturako Enplegu Sozialerako Teknikaria (+46.338), Kargu politikoaren dedikazio handitzea (4,65tik 6,7ra), Konfiantzazko karguak (2tik 3ra).
- 2020ko Estatuko Aurrekontuen Legeak –onartzen denean- xedatuko du aplikatu beharreko soldata igoera.
- 2018 irailaren 18ko 2018/1457 ebazpen bidez Alkateak Lanpostuen Baloraziorako Batzorde Teknikoa eratu eta honen funtzionamendu araudia eta osaketa ebatzi zituen. Batzorde horrek egindako lanaren ondorio, otsailaren 25eko bileran, lanpostuen baloraziorako proposamena AHOBATEZ onartu da, langileen ordezkariak barne. Beraz, Lanpostuen Balorazio prozesuaren tramiteari jarraipena eman behar zaio. Honen aplikazioa, beti ere, Estatuko Aurrekontu legeen bidez soldata igoerari buruz emandako xedapenak jarraituz, eta hauetan ezarritako mugak eta aukerak baliatuz.
- Hiru faktore hauek –Lanpostu balorazioa, soldata igoera eta aurrekontu legearen mugak- uztartu ondoren emaitza izango den soldata egokitzapenari aurre egiteko finantzazioa gorde da Kreditu globalaren 5. Kapitulan.

### ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUEN GASTUAK:

- Kapitulu honetan oro har %2,5eko hazkundera aurreikusten da. Igoera horretan biltzen dira, datorren urterako aurreikusten diren zerbitzu kontratazio edota erosketa berriak, edota gaur egun indarrean dauden berritze eta hobekuntzak.
- Halaber, Administrazio eta funtzionamendu arrunteko hainbat partida egokitu dira: Administrazio orokorreko kontratuak, Bulego ekipoen mantenua, Posta zerbitzua...
- Saneamendua eta uraren kasuan, Añarbeko Mankomunitateak urriaren 26ko Batzar Nagusian onartutako igoerak aintzat hartu dira. Hori horrela, saneamendua %3 inguru igoko da, eta uraren kasuan, nahiz eta tarifa igoerarik ez dagoen, 2018ko kontsumo bolumen estimatua kontuan hartuta (etxebizitza berriak...), aurreikuspena egokitu da.

## TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

Aurrekontuaren eranskinean zerrendatuta daude Udalak banatuko dituen diru-laguntza guztiak eta bakoitzaren izaera (zuzenak ala norgehiagoka bidezkoak).

Urteroko diru-laguntza programa mantentzen bada ere, aurtengo berrikuntzak dira:

- Diru-laguntza zuzena, Hernani Zero Zabor Taldea.
- Hirigintza sailaren etxebizitza birgaitzeetarako diru-laguntzak banatzeko deialdia ez da aurreikusi, 2019ko programa oraindik garatu gabe dagoelako.
- Fiare mikrokredituen programarako aurreikuspena egin da, nahiz eta funtsak erabilgarri duen kopurua nola kudeatzen den ikusi beharko den.
- Hazkunde nagusia Zerbitzu Sozialak erakundeari egin beharreko ekarpenean jasotzen da, %13,8ko hazkundera, 320.151 euro gehiago. Ekarpenean handitzearen arrazoi nagusiak: pertsonal gastua (%2,5), Zaharren Egoitza eta Eguneko Zentroari dagokion kanpoko enpresen kontratu berritzeak, eta Oinarrizko Zerbitzu Sozialetan zerbitzu berriak sortu eta gastuak handitu izana.
- Ereñotzuri egin beharreko ekarpenean hazkunderik ez, 2020ko udal aurrekontua apalagoa baita.

## INBERTSIOAK

Aurrekontuaren eranskinean zerrendatuta daude inbertsio atalean jasotako gastu proposamenak. Inbertsioetan 1.730.500 euro aurreikusten dira. Hauek dira ekimen nagusiak:

ADMIN OROKORRA	BULEGO ALTZARIAK.	3.000
GAZTERIA	GAZTELEKUA KONPONKETAK	20.000
HIRIGINTZA	LANDARE-ZUBIONDO-IBAIONDO BIDEGORRIA. PROIEKTUA	18.000
HIRIGINTZA	GUDARIEN PLAZA. IRISGARRITASUNA. PROIEKTUA.	20.000
HIRIGINTZA	PORTU-KARABEL OINEZKOEN LOTURA. PROIEKTUA	30.000
HIRIGINTZA	ELIZATXO-60-66-URBANIZAZIOA. PROIEKTUA	30.000

HIRIGINTZA	OSINAGAKO ZUBIA. PROIEKTUA	60.000
HIRIGINTZA- INGURUMENA	LANDA GARAPENA. LUR EROSKETA	30.000
HIRIGINTZA- INGURUMENA	ENERGIA PLANA INBERTSIOAK	75.000
INFORMATIKA	INFORMAZIO-PROZESUETARAKO EKIPOAK	25.000
KIROLA	ZUBIPE-INBERTSIOAK	9.500
KIROLA	KIROLDEGIA-INBERTSIOAK	58.000
KIROLA	IGERILEKUA-INBERTSIOAK	128.000
KUDEAKETA	HERNANI ERABAKI 2020	500.000
KULTURA	FUNTS BIBLIOGRAFIKOAK	44.000
HIRIGINTZA/ ERAIKINAK	UDALETXEKO ESTALKIA	30.000
TURISMO SALA	TURISMO BULEGO BERRIA EGOKITZEKO LANAK	70.000
ZERBITZU PUBLIKOAK	KALE ALTZARIAK	10.000
ZERBITZU PUBLIKOAK	HOBKUNTZAK-UR HORNIDURA	50.000
ZERBITZU PUBLIKOAK	HOBKUNTZAK-SANEAMENDUA	70.000
ZERBITZU PUBLIKOAK	IRISGARRITASUN OBRAK	75.000
ZERBITZU PUBLIKOAK	ASFALTATZE PLANA	100.000
ZERBITZU PUBLIKOAK	IKASTETXEAK-INBERTSIOAK	100.000
ZERBITZU PUBLIKOAK	ELIZATXO-PSIKOMOTRIZITATE GELA	70.000
ZERBITZU PUBLIKOAK	LANDA BIDEAK. INBERTSIOA	105.000

OHARRA: Inbertsio alorrean, Gobernu Taldeak baditu beste hainbat premia, zehazteko prozesuan daudenak. Hauen dokumentazio teknikoa osatzen den neurrian, aurrekontuari inkorporatuko zaizkio, bai kreditu globaleko partidaren kontura, edota 2019ko aurrekontuaren likidazioa itxi eta diruzaintza gerakinaren bidez aurrekontuan txertatu.

## **5. SAILEZ-SAIL (PROGRAMA) LABURPENA.**

### 132-UDALTZAINGOA.

- Jantzietarako partida mantentzen da.

### 151-HIRIGINTZA.

- Proiektu teknikoak landuko dira ondoko egitasmo hauek garatzeko, guztira 158.000 euro: Osinagako zubi berria; Gudarien plaza; Elizatxo 60-66 etxaldeko urbanizazio proiektua; Landare-Zubiondo-Ibaiondo poligonoa bidegorria.
- Etxebizitza Birgaitzeko Diru-laguntzen programa garatzeko 2019 aurrekontuko partida erabiliko da.
- Galarreta eremuaren garapenerako tramiteen baitan egitasmo hau urtean zehar txertatu daiteke aurrekontuan.
- Energia aurrezteko planarekin lotutako ekimenak 172 gastu programan txertatu dira: Energia Planaren Jarduketak eta Inbertsioak, guztira 135.000 euro.

### 153-ZERBITZU PUBLIKOAK.

- Kale eta bideen mantenurako urteroko partida mantentzen da, 175.000 euro.
- Asfaltatze lanetarako, 100.000 euro. Kontuan izan 2019 urtean egin berri dela inbertsio nagusia (537.000 eurotako lizitazioa).
- Landa bideetan, 105.000 euroko inbertsioa aurreikusi da.
- Ur hornikuntza eta Saneamendu-arazketa mantenu partidak mantendu dira, guztira 160.000 euro, sareak beharrezkoak dituen urteroko mantendu lanak ziurtatzeko.
- Ur hornikuntza eta Saneamendu-arazketa sarean hobekuntzak egiteko, 120.000 euro.
- Kale Argiteria publikoaren sareen mantenua eta hobekuntzak egiteko, urtero moduan, partidak aurreikusi dira. Mantenurako, 80.000 euro. Sarearen hobekuntzetarako partidak jasota daude beste programa eta partidaren bidez (2019 partidak): energia aurrezteko plana eta Hernani erabaki.

### 162-HONDAKINEN BILKETA ETA KUDEAKETA.

- Udalaren bitartekoa den Garbitaniarekin landutako aurreikuspena jaso da, herriko bilketa eta poligonoetako bilketarako.
- Bilketaren kostua %2,3 igotzea aurreikusten da, beraz ez dago aldaketa esanguratsurik, kontuan hartuta honen barne daudela zerbitzu kostu igoerak: langile soldatak (%2,5 aurreikuspena) eta zerbitzu kostuen igoera.
- Berrikuntza gisa proposatzen da Errefusaren kudeaketarako hezitzaile figura sortzea, enpresa eta komertzioei bideratutako aholkularitza eta formazio lanak bideratzeko.

### 163-KALE GARBIKETA.

- Udalaren bitartekoa den Garbitaniarekin landutako aurreikuspena jaso da.
- Zerbitzuaren kostua %6 igotzea aurreikusten da. Aurreko puntuan adierazi bezala, kopuru horretan sartuta daude 2020 urteko langileen soldata igoera, eta hainbat zerbitzu hobekuntza: asteburuetakako errefortzuak eta oporren ordezkapena.

### 172-INGURUMENA



- Jarduketa nagusia azterketara bideratuko da, guztira 115.000 euro. Aurreko urteetako lan ildoak jarraituz atal hauek landuko dira: Aire kalitatearen azterketa; Bioaniztasuna, Aiako Harria parkean burutu beharreko lanak, Landare inbaditzaileen aurkako programa, Lurzoru kutsatuak dauden eremuetarako lan teknikoak egiteko; zarata planaren ekintzak.

## 231-BERDINTASUNA-LANKIDETZA-INMIGRAZIOA.

- Sailak kudeatzen dituen programa eta dinamizazio lanetarako 280.000 euro bideratuko dira. Kontsolidatuta dauden programen jarraipena ziurtatzen da.

Hau da banaketa:

- Aurretik datozen programen kudeaketa mantendu eta indartu egin da: Hezkidetza (60.000 euro); tailerren eskaintza (35.000 euro); Beste ekimenak (70.000 euro); Indarkeria matxista lantzeko programa (25.000 euro); Genero zehar-lerrotasuna lantzeko aholkularitza kontratua, 45.000 euro.
- Berrikuntza nabarmena izango da Kulturarteko Plaza Feminista martxan izango dela 2020 urtean. Hori horrela, Plaza Feministaren dinamizazio lanak burutzeko partida sortu da, 35.000 euro (2020 uztaile-abendua).

## 231-LANKIDETZA-INMIGRAZIOA.

- Lankidetza alorrean, urtero bezala, partida nagusia diru-laguntzetara bideratuko da: 233.547 lankidetza proiektuetarako. Diru-sarrera arrunten %0,79.
- Immigrazio alorreko ekimenetarako, guztira 105.000 euro. Partida nagusia AMHER elkartearekin lankidetza hitzarmena finantzatzeko da (65.000 euro). Kulturarteko Plaza Feministaren harira antolatutako sentsibilizazio kanpainetarako ere 10.000 euro bideratzen dira.

## 231-GAZTERIA.

- Sailak kudeatuko dituen programetarako 150.000 bideratzen dira.
- Ohiko programak mantentzen dira: Gaztelekua (90.000 euro) eta Gazteria egitasmoak (24.000 euro). Berrikuntza gisa, bi ekimen berri proposatzen dira: Gazteria ikastaroak (Hernani Erabaki abian jarritako programa) eta “Haurren herria” egitasmoa.
- Alokairu diru-laguntza programa mantentzen da, baina 2019 urteko partiden kontura. Izan ere, 2019ko partiden kontura programaren 16 hilabete finantzatuko dira (2019 iraila/2020 abendua), horrela urte naturalarekin bat egiteko. 2021 urteko aurrekontuan berriz jasoko da partida.

## 231- ZERBITZU SOZIALAK.

- Zerbitzu Sozialak erakundeari ekarpena handitzen da %13,82, guztira 2.637.092 euro. Gastu igoera garrantzitsuenak dira: langileen soldata igoera, eta zerbitzu kontratuen berritzea.

## 241-TOKI GARAPENA.

- Sailak zuzenean kudeatuko dituen egitasmoetarako 82.000 euro bideratuko dira.

Honela banatuta:

- Indarrean diren programa nagusiak mantentzen dira: Iturrola-Coworking (10.000 euro); Enplegu orientazio zerbitzua, Eusko Jaurlaritzak finantzatua; Ekimenak (25.000 euro).

- Berrikuntza gisa: Merkataritza Planarekin lotutako egitasmoak bideratzeko (46.000 euro).

Beste eragileekin batera, 166.000 euro kudeatuko dira:

- BERRIAK elkartearekin urteroko hitzarmena, 27.000 euro.
- BETERRI eskualdeko udalek 2017 urtean sinatutako hitzarmenean jasotako lankidetzeta programa finantzatzeko Hernaniko Udalari dagokion ekarpena jaso da, guztira 139.537 euro.

### 323-HEZKUNTZA.

- Herriko Ikastetxeetan lantzen diren programa eta ekimenetarako 94.100 euro bideratuko dira, aurreko urteko ildo mantenduz.
- Hezkuntza eraikinetan inbertsioak egiteko 170.000 euro bideratuko dira: urteroko partida orokorraz gain (100.000 euro), Elizatxo Ikastolako Psikomotrizitate gela lanetarako 70.000 euro bideratuko dira.
- Musika Eskolak aparteko aurrekontua du, orotara 696.439 eurokoa.
- Oinarrizko Lanbide Heziketa programak 200.476 euroko aurrekontua izango du.

### 330-KULTUR ZERBITZUAK.

- Kulturaren sustapenerako 1.033.700 bideratuko dira. Honela banatuta:
- Ohiko programak: Kultur ekintzak (155.000 euro), zinema zerbitzua (36.000), kultura tailerrak (130.000 euro).
- Diru-laguntza lerroak mantentzen dira: kultur ekintzetarako diru-laguntza programa (80.000 euro), arte sorkuntzarako bekak (10.000 euro), Auzo elkarteak (120.000 euro), Musika Banda (83.459 euro) eta Txistulari Banda (38.813 euro).
- Herri jaiak eta ospakizunetarako 209.000 euro.
- Liburutegiak bideratutako ekimenetarako 45.000 euro eta liburutegiko funtsak hornitzeko, urtero bezala, 44.000 euro.
- Biteri Kultur Etxean hobekuntza lanak egiteko, 2019 urtean sortu zen 200.000 euroko partida erabiliko da: leihoak aldatzeko 2. Fasea, klimatizazioa hobetu, segurtasuna eta auto-babes plana egokitu.

### 335-EUSKARA.

- Sailak bideratzen dituen egitasmoetarako 270.800 euro bideratuko dira, honela banatuta:
- Urteroko egitasmoak mantentzen dira: Ekintza kanpaina (18.000 euro.). Buruntzaldeko euskara egitasmoak finantzatzeko 30.000 euro. Hezkuntza egitasmoetarako 22.800 euro.
- Diru-laguntza lerro nagusia mantentzen da. Deialdi bidezko ekimenetarako 54.000 euro eta euskararen aldeko elkarleen jarduna sustatzeko 142.000 euro.
- Euskaltegiak aparteko aurrekontua du, 490.063 eurokoa.

### 342- KIROL SUSTAPENA.

- Kirol Sustapen egitasmoetara 220.239 euro bideratuko dira, honela banatuta:
- Ohiko programetarako 28.000. Diru-laguntza lerroak 192.239: Kirol ekintzak, Eskola Kirola eta Klubekin hitzarmenak.
- Kiroldegiak 1.603.044 euroko aurrekontua izango du, inbertsioetarako 58.000 barne.

- Kanpo Igerilekuek 361.357 aurrekontua izango dute, inbertsiotarako 128.000 euro barne.

#### 432-TURISMOA.

- Sailak garatuko dituen egitasmoetarako 126.300 euro izango ditu.
- Partida horren barruan nabarmendu behar da aurten Turismo Ekintza Plana indartu nahi dela. Horretara 60.000 euro bideratuko dira, joan den urtean baino 45.000 euro gehiago.
- Turismo bulego berria egokitzeko lanak, 70.000 euro.

#### 920-ARTXIBOA.

- Sailak kudeatzen dituen egitasmoak bideratzeko 52.300 euro izango ditu. Horietatik 44.300 urteroko ohiko programak garatzeko eta 8.000 euro Kultur ondarea aztertzeke bekak.

#### 924-PARTEHARTZEA.

- Parte hartze programak bideratzeko, 50.000 euro.
- Auzolan programarako diru-laguntza lerroa, 25.000 euro.
- Web gunea berritzeko 20.000 euro.

Hernanin, 2019ko azaroaren 12an  
Alkatea, Xabier Lertxundi Asteasuizarra